



DI D A M

BAYONNE

BAIONA HIRIAK AURKEZTEN DU

| ERAKUSKETA

CHRISTIANE GIRAUD

NEURRI POETIKOA...

KANTU ISIL BATEN GISARA...

2023ko OTSAILAREN 24tik APRILAREN 23ra
Asteartetik igandera, 13:00etatik 18:30etara irekia. Denei irekia

Bayonne*

BAIONA-PAYS BASQUE

Plurielle et si singulière

« Jestua eta materia iturri dituen sorkuntza zizelkatua proposatzen du azken urte hauetan gure hirian biziki ezaguna den Christiane Giraud-ek.

Haren lanaren zati berri bat bai eta haren jarduera artistikoaren aurpegi ezezaguna agerian ezartzen ditu Didamen aurkeztu nahi izan duen erakusketa honek: neurriak nahastekatzen ditu margolaritzak zizelkaritzari lekua bapatean utziz. Ustekabeko bilakaera haren sorkuntza ezagutzen duenarentzat eta batzuetan paretez askatzen den margolaritza aurkikuntza esparrua elikatzerara etortzeko.

Plastizianoaren obra berriz ezagutzeko parada, bistako arteen arloan, Euskal Herriko pertsona ospetsu bati, negu bukaeran, Didamek urtero eskaintzen dion urteko erakusketa honen kariatara. »

Jean-René Etchegaray

Baionako Auzapeza - Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria





Christiane Giraud-k bere sorkuntzari bizi osoa eskaintzen dio. Baionan oraindik haurra zelarik Arte eskolako Louis-Frédéric Dupuis maisuaren eskutik bokazio hori sortu zitzaion. Ordutik urratsez urrats bere mundua eraikitzen jarraitu du. Hasieran marrazki eta pinturak ikasi bazituen Gilberte Gomas emazte maisuaren irakaspenetik eskultura bere bidea zela topatu zuen. Geroztik hortarik bizitzeko bidean etengabe joan da.

Haurtzarotik agertu zuen pertsonalitate indartsuak lagundu du bere aukerei ihardokitzen kemenez eta sinestez, baldintza materialen nekeak gaindituz. Eraiki duen munduak onarpen eta errespetua sortu dizkio. Abstrakzioan baina natura eta biziaren indarren oihartzunean, ez iduriko geometria aberatsarekin, zuraren bero bizia eta burniaren latza eta leuna elkartzen ditu. Gaurregun pinturari, hasierako bideari, berriro lotzen da.

Arruntzako bizi eta lan tokian bakartasun baten itxurak ezin du izkutu mundu zabalarekin duen lotura. Australia edo Biarritzeko Atalaiako simposiumetan eta Izurako beilabidetik Baionako erakusgela ospetsuetara bere lanak Artearen sentipen eta bizia elkartzen ditu. Bakartasun beharrezko batean baina munduarekin bat ginez.

Lucien Etxezaharreta, 2020

LA DIMENSION POÉTIQUE...

COMME UN CHANT SILENCIEUX...

Tout ce que je vois, j'entends, je vis résonne en moi,

me traverse, m'interroge, me bouscule.

Toutes ces sensations fortes, ces vibrations intenses,

j'ai besoin de les extérioriser, de les matérialiser,

qu'elles prennent corps et vie sous une forme peinte ou sculptée.

Tout cohabite en moi, joie, douleur, douceur, violence,

la beauté lumineuse et la beauté tragique.

Les courbes douces, les droites fermes, la lumière des blancs,

la rigueur des noirs, les rouges violents.

La résonance de toutes ces vibrations prend pour moi une intériorité,


une dimension poétique, comme un poème sans mots,

une musique intérieure comme un chant silencieux.

Christiane Giraud - Ustaritz, 2022







«Enigme» © Alexandra Vaquero

ERAKUSKETAREN INGURUAN

Xehetasunak eta izen-emateak:

06 02 42 71 39 / mediation.didam@bayonne.fr

02/24 OSTIRALA > ESTREINA

18:30 > Erakusketaren estreina, denei irekia.

Artista bertan izanen da.

03/05 IGANDEA > BISITA KOMENTATUA

BAPATEKO ITZULPENEA ELKOR ETA ENTZUMEN URRIKOENTZAT

ANIZTASUNAREN ASTEA

16:00-17:00 > Erakusketaren bisita keinuen hizkuntzara itzulirik

Christiane Giraud artistaren eskutik, Céline Juillet, elkor eta entzumen urrikoentzako interpreteak itzulirik.

Urririk. Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

03/20 ASTELEHENA > IDAZKETA TAILERRA

FRANTSES HIZKUNTZA ETA FRANKOFONIAREN ASTEA

9:30-12:30 > Encre(s) aldizkariako Laurent Platerok animatu tailerra

Denei irekia. Pagatuz: 11,50 €, seniorrak 10 € eta Déclit txartela 8 €.

Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

03/22 ASTEAZKENA > FAMILIA ARTEAN!

11:00-12:00 > « UDABERRI ARRUNT KOLORETSUA »

Erakusketa familia artean burutu, udaberria gaitzat duen tailerra plastiko batekin. Tindua eta plastikazko zakuttoak erabiliz, udaberria gaiaren inguruko osaketa bat burutzen dute haurrek. Eraitza oso koloretsua lortzeko!

7 urtetik goiti. Urririk. Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

03/29 ASTEAZKENA > EUROPAKO ARTEKO LANBIDEEN EGUNA

10:00 -> 12:00 > « BIDAIA UR MARGOEZ ART DÉCOREN GARAIA »

L'Arsenal Galeriariko Sandrine Delpla-rekin, ur margoaz lehen irakaspena har ezazue. Sar zaitezte arteko eskulangile baten gorpuan, irudika ezazue eta marraztu gaur egungo Didam, lehengo Itsas Matrikulazio eraikinerako apainketa objektu bat. Zuen sorkuntzak Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroan aurkeztuak izanen dira ondotik, JEMA/EALE asteburuan (apirilaren 1 eta 2an).

Hasiberriak onartuak. 7 urtetik goiti.

Urririk. Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

**04/05 ASTEAZKENA > JOKOAREN HILABETEA / BAIONAKO MEDIATEKA****11:00-12:00 > « NIRE LEHEN ZIZELKADURA » Tailerra**

Baiona hiri barneko mediatekan eskaini animazioa.

Erakusketarekin batera, zizelkaritza ikasten dute hurrek moldatzeko orearen bitartez eta haien lehen arte obra burutzen dute. Didameko bitartekariak zuzendu tailerra.

4 urtetik goiti. Argibideak eta xehetasunak: mediatheque@bayonne.fr edo 05 59 59 17 13. Lekuen kopuru mugatua.

**04/12 ASTEAZKENA > YOGA FAMILIA ARTEAN****11:00-12:00 > « IZADIAREKIN BAT EGINEZ! »**

Erakusketako obretatik abiatuz, yoga ikas ezazue izadiarekin loturan dauden egon-moldeei jarraikiz. Familia artean segitzeko!

6 urtetik goiti. Pagatuz: 11,50 €, seniorrak 10 € eta Déclic txartela 8 €. Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

**04/17 ASTELEHENA > IDAZKETA TAILERRA****9:30-12:30 > Encre(s) aldizkariko Laurent Platerok animatu tailerra**

Denei irekia. Pagatuz: 11,50 €, seniorrak 10 € eta Déclic txartela 8 €.

Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

**04/22 LARUNBATA > TOPAKETA****16:00 > Christiane Giraud & Sabine Cazenave, Kontserbatzaile burua**

Elkartze bat eta trukatzek artista eta Sabine Cazenave, Baionako Euskal Museoko Zuzendaria eta Bonnat-Helleu Museoko egitasmo Zuzendariarekin.

Urririk. Lekuen kopuru mugatua, izena eman behar da.

**ESKOLAKOAK, ESKOLALDITIK KANPO ETA TALDEAK**

Bisitak frantsesez komentatuak eta DIDAM-eko bitartekaritzak proposatu egitasmo bereziak. Xehetasunak eta izenak emateko: Léa Magud 06 02 42 71 39 / mediation.didam@bayonne.fr

CHRISTIANE GIRAUD-EN MOLDEAN

Udaberria heltzean, sar zaitetze loratzen hasten den izadian zuen landare obra ederrenak sortzeko. Abstraktuak, Christiane Giraud-en moldean, figuratiboak Jean Davidsz de Heem, 17. mendeko herbeheretar margolariaren natura hilen gisara edota ere irringarriak eta jostagarriak Giuseppe Arcimboldo italiar margolari manierista famatuaren izpirituari jarraikiz. Zuen margo arkatzak, zuen urmargoak edo kolaketak har itzazue eta zuen osaketa plastiko ederrenak erakusgai jar itzazue!

Euskarri numerikoak mailez 23/04/17a aitzin ondoko helbidera igor itzazue: mediation.didam@bayonne.fr.

Proposamen honetan parte hartuz, Baiona Hiriko euskarri numerikoetan (web & Didam guneak eta sare sozialak) eta Didameko erakusketa esparruan hedatuak izateko irudi eskubide baimena izenpetuko duzue.

DIDAM BAYONNE**6 QUAI DE LESSEPS – BAYONNE
LESSEPS KAIA, 6 – BAIONA****BAIONA HIRIKO ARTE GARAIKIDEN GUNEA****RENSEIGNEMENTS | DIRECTION DE LA CULTURE ET DU PATRIMOINE DE LA VILLE DE BAYONNE
| XEHETASUNAK | BAIONAKO KULTURA ETA ONDAREAREN ZUZENDARITZA | 05 59 46 63 43 |**